

Jakintsuen Kontseiluaren bi bideak

Aurtengo bigarren bilera ospatu du Gordexolako Umeen Kontseiluak otsailak 18 dituenean.

Aurreko egunean hasitako mapa sentsorialarekin jarraitu dugu lanean, herria gutxienez bost zentzumenen bidez jasotzen baitugu, eta bakoitzetik informazio desberdinak jasotzen. Ohikoan dena integratuta bizitzen garela, zer gertatzen da informazio bakoitza banatzen saiatzen bagara?

Zuk zeuk, hau irakurtzen ari zaren horrek, gure herriko zein leku nabarmenduko zenuke zentzumen bakoitzari dagokionean? (eta ez dute balio etxe barruko kontuek, espazio publikoaz ari gara) Ze zapora dauka herriko plazak? Ze usain hartzen diozu kanposantuari? Lakatzak dira zure etxearen kaleko paretak? San Kosmetik dagoen ikusmira duzu gustokoena? Zu ere Ponton inguruan aritzen zozoaren doinu delikatuei aditzen ibiltzen zara?



Halako gauzak probatzen aritu gara gaur GUKen, halako istorioak jasotzen, oroimen hurbiletik edaten, umeen begiradaz gain umeen entzumena, usaimena, dastamena eta ukimena ere jaso nahi baitugu Gordexolarekiko.

Panel batean ipini dugu herriko mapa eta denon artean aukeratu ditugu zein bost kolore dagozkien zentzumen bakoitzari. Inguruan jarri gara eta Dastamena eta Usaimena kokatu ditugu, banan bana umeak altxatuz eta bakoitzak zentzumen horrekin aukeratutako lekua eta arrazoia azaldu eta mapan rotulagailuarekin markatuz.



Udaletxera joan gara gero, eta bertan Angela Eguia alkateak gela eta langile desberdinak aurkeztu dizkigu: Mar, Cristina, Ramon, Itzi, Iñigo... Osoko Aretoan bildu gara gero eta zenbait gairi buruz mintzatu dira umeak eta Alkatea: plazako komunak, bidegorriak, bisoi europarra...

Iaz GUKek Alkateari aurkeztu zizkion herriko plazari buruzko ideiei buruz era galdetu diote Alkateari, eta honek hor dauzkatela gordeta erantzun, plazako obrak egitera doazenean aintzat hartuak izan daitezten... Galtzaden elkarketa noizko egingo ote duten galdetu diote Alkateari eta honek proiektuaren egoera azaldu die, urte amaierarako egiteko asmoa dutela argituz.

Alkateak Gordexolako Umeen Kontseiluari egiteko zeukan eskaria kontatu die orduan umeei: etxeko animaliei buruzko gaia proposatu die, hau da, jabeen jokaera zibikoagoa sustatzeko zerbait egin dezaten eskatu die: batzuk lotu gabe doaz, beste batzuk mozalik gabe, gorotzen asuntua... Horixe izango dute aurten bigarren bidea GUKeko umeek, beraz, eskari honi buruzko erantzunen bat bilatzea.



Bide batetik eta bestetik ibiliko gara, ikusmira berri eta eraldatzaileei adi beti ere. Hurrengo bilera martxoaren 23an ospatuko dugu.

Hemen ikusi eta jaitsi ditzakezue bilera honetako argazkiak:

<https://flic.kr/s/aHsmLzae9F>